AZPEITIA





Numerosos compañeros jesuitas, familiares y amigos arroparon a los protagonistas durante el día de ayer en Loiola. :: E.A.

# Tres nuevos jesuitas pronunciaron sus primeros votos en Loiola

Pedro Aliaga, Francisco Javier Bailén y Alberto Estévez emprenden una nueva andadura en la Compañía de Jesús

:: ELI AIZPURU

**AZPEITIA.** La basílica se llenó ayer de familiares, amigos y compañeros jesuitas venidos de diferentes lugares para acompañar en un día muy especial a tres novicios jesuitas que pronunciaron sus primeros votos de compromiso perpetuo de pobreza, obediencia y castidad ante la Compañía de Jesús. Son Pedro Aliaga Martinez, almeriense de 40 años; el valenciano Francisco Javier Bailén Llongo, de 36 años y el madrileño Alberto Estévez López, de 28 años.



Francisco Javier, Alberto y Pedro, tras los votos realizados. :: E.A.

En nombre de los tres, fue el más joven, Alberto Bailén, el que se encargó de agradecer, tanto en euskera como en castellano, la presencia de todos los compañeros jesuitas, familiares y amigos en el comienzo de esta nueva trayectoria.

El proceso de formación de estos tres jesuitas no ha hecho más que comenzar. Deberán continuar un largo itinerario tras este primer hito. Pedro lo hará en Granada, estudiando Ciencias Religiosas; Francisco Javier, en Madrid, estudiando Teología; y Alberto, en Roma, donde cursará estudios de Filosofía.

# Azpeitiaren eta Hazparneren arteko senidetzearen festa ospatuko da hilaren 23an

Bi herriak senidetu zireneko 30. urteurrena bete da eta Hazparnen egingo da jaia. Autobusak antolatu dituzte bertaratzeko

:: E.A.

**AZPEITIA.** 2017an betetzen dira Azpeitia eta Hazparne senidetu zireneko 30 urte. Hori dela eta, urteurren borobila gogoratzeko asmoz, jai berezia antolatu dute Hazparnen hilaren 23rako. Urtean zehar, hainbat ekintza prestatu dituzte bi herrietako Udalek eta hainbat eragilek. Jarduerekin jarraitu asmoz egun osoko festa prestatu dute orain Lapurdiko herri ezagunean. Azpeitiko Udalak herritarrei dei egin die Hazparnera bertaratu daitezen.

Irailaren 23an Azpeitiko udal ordezkariak Hazparnen izango dira, eta hango agintariek harrera instituzionala egingo diete hemengo korporazioari. Senidetzaren harira, berezitasun bezala, Azpeitiko Udalak Done Jakue kaleko Gernikako Arbolaren kimu bat eramango du Hazparnera, bertan landatzeko. «Zerbait berezia eskaini nahi diogu Hazparneri egun horretan, eta uste dugu polita dela guretzat berezia den zuhaitz baten kimua bertan landatzea», adierazi du Aitor Bereziartua zinegotziak.

### Izen-ematea zabalik

Udalak Hazparnera joateko doako autobusak antolatu ditu. Hilaren 23ko festara joan nahi duten herritarrek irailaren 15a bitartean eman beharko dute izena Kultur bulegoan (943 157 068).

Behin Hazparnen bazkaria antolatu da eta norberak bere poltsikotik ordaindu beharko du. Helduek 25 euro ordaindu beharko dituzte bazkarirako txartelak. Animatzen diren haur eta gaztetxoek, aldiz, hamar euro.

**EGITARAUA**

**08:30:** Autobusen irteera, anbulatorio aurretik.
**10:00:** Azpeitiarrei harrera, Mendealaren aurrean.
**10:30:** Haritz landatzea.
**11:00:** Kalejira udaletxeraino.
**11:45:** Udalbatza, udaletxean.
**12:45:** Zintzur bustitzea eliza plaza aurrean.
**13:45:** Bazkaria.
**16:30:** Kantuak, dantzak eta musika.
**19:00:** Azpeitira buelta, Harana plazatik.

## Lagun Onakek teknifikazio eskolako gurasoentzat bilerak deitu ditu

:: DV

**AZPEITIA.** Lagun Onak Futbol Taldeko teknifikazio eskolako neska-mutilen gurasoekin bilerak egingo ditu klubak irailaren 12an eta 13an, Sindikatu Zaharrean, eskolei buruzko informazioa emateko. Asteartean, irailaren 12an, 2007an jaiotako mutilen gurasoek 19:00etan izango dute hitzordua. 2006-2007ko eta 2008-2009ko neskenek, berriz, 19:45ean. Asteazkenean, hilaren 13an, 2008an jaiotako mutilen gurasoen txanda izango da, eta 19:00etan egingo dute bilera. 2009an jaiotako mutilen gurasoek, aldiz, 19:45ean gerturatu beharko dute Sindikatu Zaharrera. Teknifikazio eskolan izena emateko epeak zabalik jarraituko du hilaren bukaera arte. Lagun Onakeko weborrian egin daiteke inskripzioa. Informazio gehiagorako 943 815 907 edo info@lagunonak.com.

## Karate elkarteak datorren asteazkenean hasiko du ikasturtea

:: DV

**AZPEITIA.** Azpeitiko Karate elkarteak irailaren 13an, asteazkenean, hasiko du 2017-18 ikasturteko denboraldia, ohi bezala, kiroldegian (Landetan).

Adinaren arabera antolatu dituzte bai egutegia eta baita ordutegia ere. Honela, 9 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako saioak asteazkenetan eta ostiraletan burutuko dira 17:30etik 18:30era bitartean; 9 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako ere egun berdinetan izango dira,baina 18:30etik 19:30era arte; 14 urtetik gorakoentzat aldiz, astean hiru egunetan izango dira: astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan, 19:30etik 20:30era (saio hauek hasita badaude ere, oraindik izena eman daiteke).

Izena emateko edo informazio gehiago jaso ahal izateko, 646 763 265 telefonora dei daiteke edo aipatutako edozein saiora azaldu.

## Astean zehar eman ahal izango da izena Itsasi dantza eskolan

:: DV

**AZPEITIA.** Itsasi Euskal Kultur Taldeak bere dantza eskolan izena emateko epea zabaldu du. Datorren astean izango da horretarako aukera, irailaren 12an, 13an eta 14an, hain zuzen ere. 17:30etik 19:00etara egin ahal izango da inskripzioa, kultur taldearen lokalean, Urola kalea, 6an. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek izango dute izena emateko aukera eta urteko kuota 60 eurokoa izango da.

Bestalde, 16 urtetik gorako edonork dantzan hasteko gogoa izango balu, Itsasiko taldekideekin harremanetan jar daiteke. Horretarako, deitu 943 151 849 telefono zenbakira.

**EN BREVE**

## Publicación de esquelas, publicidad e información

Para publicar esquelas o publicidad pueden dirigirse a esta corresponsalía llamando al teléfono 610 812 912 o en el correo electrónico eli.aizpuru@gmail.com. Para publicar sus notas, pueden dejar la información, previo aviso, en el buzón situado en Juantxo Txiki taberna.

pressreader PRINTED AND DISTRIBUTED BY PRESSREADER PressReader.com +1 604 278 4604 COPYRIGHT AND PROTECTED BY APPLICABLE LAW